# Elkartearen Aldizkaria

23.zbk. 2026

- Editoriala
- Jarduerak
- Elkartea
- Colaborazioak
- Kontsumo
- Bidaiak
- Eskaintzak

ta gehiago



**BBK_ ko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea**

Principe kalea, 5. 505 saila • 48001 BILBO • Tel. 94 425 57 96 • asojubibbk@gmail.com • www.asojubibbk.es

Bizkaia foru aldundia diputación foral

# EDITORIALA

**EKAINA 2026**

Elkartean oso ekitaldi mugituak eta jarduera garrantzitsu edo egitekotsuak izan ditugu azken urteetan. Gizarte Segurantzako eta Mutualitateetako kotizazio bikoitzaren gaia izan genuen, Gizarte Segurantzan 1979. urtea baino lehenagoko kotizatzaile guztiei eragin ziena. Egitate hark zergapetze bikoitza aitortu zuen; ondorioz, PFEZean soberan kobratutako dirua berreskuratzea ahalbidetu zuen, eta dagoeneko zuzenduta dago modu iraunkorrean. Modu aktiboan parte hartu genuen erreklamazioan, eta emaitza bikaina izan zen.

Duela gutxi pozik jaso dugu arau berriak, zerga-sistemaren zerga-berrikuspena erraztu dutenak, argitaratu izana Euskadin, borondatezko gizarte-aurreikuspenari buruzko araudia sakon erreformatuz eta, beraz, BGAEen eta pentsio-funtsen zerga-erregimenari nabarmen eraginez. Aldaketa horrek konpondu egin ditu gure Haziaren erreskatean zerga-ordainketako arazo asko; izan ere, aspaldidanik ari ginen horretan lanean, zerga-tratamendua hobetu ahal izateko legezko konponbideen bila. Aldaketa zenbaterainokoa den behar bezala informatzen eta argitzen saiatu gara, eta gure afiliatuei ahalik eta ikuspegirik onena eskaini diegu funts edo fondoak erabiltzeko orduan. Titular bakoitzak bere beharrizanak ditu, eta erabat pertsonalizatutako tratamendua aukeratu behar du.

Tamalez, egitate horrek Euskadin egoitza duten zergadunei baino ez die eragiten oraingoz, eta Estatuan ere lehenbailehen gertatzea espero dugun aldaketaren zain geratu dira gainerakoak.

Jarduera horiek amaitu eta gainditu ostean, uste dugu iritsi garela Elkarteak antolatutako ekitaldietan parte hartzera gure kolektiboa animatzeko puntura. Azkenaldian nabaritu dugu taldearen bidaietan eta ekitaldietan parte-hartzea igo egin dela, zorionez. Gure ustez, hori izan daiteke jarraitu beharreko helburu bat, afiliatuen interakzioa eta parte-hartzea hobetuz. Horretarako, jarduera berriak prestatuko ditugu, eta, ahal den neurrian, egun bateko bidaiak bultzatuko ditugu, egiteko errazagoak eta erosoagoak baitira.

Duela gutxi, Petronorren lantegia bisitatzeko txangoa egin da. Aurrez ezin izan zen egin, enpresan greba zegoelako. Aparteko erantzuna izan zuen irteerak, joan zitekeen bisitari-kopurua oso denbora laburrean osotu zen, eta emaitza bikaina izan zen. Bidaia interesgarriak ari gara prestatzen, besteak beste, Gasteizko Katedrala eta Hiri Zaharra bisitatzea, zeina oso interesgarria izango baita, gure ustez.

Gure taldearentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiei buruzko edozein iradokizun jasotzeko prest gaude, izan ludikoak nahiz kulturalak; beraz, ez izan zalantzarik zuen ideiak eta iradokizunak helarazteko, taldearen parte-hartzea sustatzen ahalegindu nahi baitugu, esan dugun legez.

Udaldi bikaina izango duzuelakoan,

beste barik, agur.



# EDITORIAL

**JUNIO 2026**

Hemos tenido en la Asociación, unos últimos ejercicios muy movidos y con una importante actividad. Pasamos por el asunto de la doble cotización a Seguridad Social y Mutualidades, que afectó a todos los cotizantes a la S.S. anteriores a 1979 . Este hecho reconocía una doble tributación que en consecuencia permitió recuperar el dinero cobrado de más en el IRPF y que ya queda rectificado de manera permanente. Participamos activamente en la reclamación y con un resultado excelente.

Recientemente hemos recibido con satisfacción la publicación en Euskadi, de nuevas normas que han facilitado la revisión fiscal del sistema tributario, reformando en profundidad la normativa sobre previsión social voluntaria y por tanto afectando notablemente al régimen tributarios de las EPSVs y Fondos de Pensiones. Este cambio ha solucionado muchos de los problemas de tributación en el rescate de nuestra Hazia, en los que veníamos trabajando desde hace mucho tiempo, en busca de soluciones legales, que nos permitieran mejorar su tratamiento fiscal. Hemos intentado informar y aclarar convenientemente el alcance de la modificación, ofreciendo a nuestros afiliados la mejor visión a la hora de la posible disposición de los fondos. Cada titular tiene sus necesidades y tiene que optar por un tratamiento absolutamente personalizado en su disposición.

Lamentablemente este hecho de momento solo afecta a los contribuyentes domiciliados en Euskadi y el resto queda a la espera de una posible modificación también en el Estado que esperemos pueda efectuarse cuanto antes.

Acabadas y superadas estas actividades, creemos que llegamos a un punto en el que podemos intentar animar a nuestro colectivo a mejorar la participación en actos organizados desde la Asociación. Hemos notado en los últimos tiempos, un incremento positivo en la participación en viajes y asistencia a eventos del grupo. Pensamos que este puede ser un objetivo a seguir, mejorando la interacción y participación de los afiliados. Con este fin vamos a preparar nuevas actividades, potenciando en lo posible viajes de un día que son más fáciles y cómodos de realizar.

Recientemente se ha celebrado la excursión con visita a la planta de Petronor, que anteriormente no se pudo llevar a cabo por huelga en la empresa, con una respuesta extraordinaria, se completó el aforo en brevísimo tiempo, y un excelente resultado. Tenemos interesantes viajes en preparación, entre ellos una visita a la Catedral y Ciudad Vieja de Vitoria-Gasteiz que creemos será muy interesante.

Estamos abiertos a cualquier sugerencia sobre los temas que puedan resultar de interés para nuestro colectivo tanto lúdicos como culturales, así que no dudéis en transmitirnos vuestras ideas y sugerencias para intentar incentivar, como hemos comentado, la participación del grupo.

Esperamos que podáis disfrutar de un estupendo periodo estival.

Un saludo.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# haizeak bere lana egin zuen

12 abendua, 2025 | **por Alazne Díez Muñiz**

Berriz ere abenduaren zortzia iritsi zen, eta Juanitak, beste hainbat umek legez, ilusio handiz espero zuen ospatzea berarentzat urteko bi festa politenak zirenak: Gabon-gaua eta Errege-bezpera. Jaiotza jartzeko unea zen, beraz, andre batek oparitutako irudi txikiak atera zituen kutxatik maitasun eta kontu handiz: Jesus Haurra bere sehaskatxoan, Ama Birjina, San Josef, idia eta mandoa.

Abenduaren 24ko afarian, neskatoak oso ondo pasatu zuen gurasoekin, bera baino zaharragoak ziren bost neba-ahizpekin eta aitaita-amamekin. Oso familia apala osotzen zuten, beraz, gau hartako jakiak ez ziren urte guztikoen aldean oso bestelakoak izan, baina berritasun handi bat izan zuten: turroi-zatitxo bat dastatu ahal izatea. Ondoren, beheko suaren ondora hurbildu eta Gabon-kanta batzuk abestu zituzten: «Din-dan-don», «Olentzero joan zaigu», «Hator, hator» eta, Juanitari gehien gustatzen zitzaiona, «Ai! Hau gauaren zoragarria!».

Egutegiak aurrera jarraitu zuen, eta laster adierazi zuen Errege-bezpera, Errege Magoek opariak uzten zituzten gau magiko hura. Juanitak ez zuen inoiz erregalu bakar bat ere jaso, baina, amaren arabera, izango zuen horrek azalpenen bat.

— Maitea, alde batetik, gure etxea herritik oso urrun dagoenez, agian Erregeak beste bide batetik joango dira eta ez dute jakingo gu hemen gaudenik ere; edo, agian, hain etxebizitza zaharra dugunez, pentsatuko dute hau etxola bat dela eta ez dela inor bizi hemen.

Neskatoak beti izaten zuen irribarrea aurpegian, eta itxaropena bihotzean. Gau hartan, badaezpada ere, afaltzeko zituen gaztainetatik hiru gorde zituen, Erregeak pasatzen baziren haientzat esku-erakutsi gisa uzteko, eta leihoan jarri zituen bere zapatila higatuen ondoan.

— Gaur, kasualitatez, gure etxetik pasatzen badira, ziur nekatuta eta goseak iritsiko direla eta, gutxienez… —esan zuen umeak ozenki.

Une hartan bertan, haren ahotsa entzun zuen haize leun batek istorioa osotzea erabaki zuen.

— Batzuetan, badakit larregi haserretzen naizela eta nire haserrearekin hondamendi handiak eragiten ditudala, baina planetari onura ere ekartzen diot polena barreiatzen dudanean, gaueko izozteak eta behe-lainoak eragozten ditudanean, edo lurruntze-efektuaren bidez soro eta lurralde istilduak sikatzen laguntzen dudanean. Badakit bihotz handia dudala eta, gaur, neskato hau ezin da opari barik geratu.

Une batez pentsatzen egon ostean, bururatu zitzaionarekin pozik geratu zen.

— Etxe handi bat ezagutzen dut, terraza handia, lorategi ederra eta zuhaitz ugari dituena. Bertan bizi diren umeen gurasoek diru asko dute eta badakit haien seme-alabek jostailu asko dituztela eta gaur gehiago jasoko dituztela. Beraz, egoera hau konpondu eta zuzendu dezakedala uste dut. Kilometro asko daude haraino, baina joateko eta itzultzeko behar dudan denboran, eta denbora horretan bakarrik, indartsu putz egingo dut lehenbailehen iristeko —esan zuen haizeak samurtasunez.

Esan eta egin. Neskatoak bere zapatilen ondoan lagatako hiru gaztainak hartu eta opariz betetako etxe dotore hartako terrazan utzi zituen. Gero, etxe xumera itzuli zen jaioberri baten tamainako panpina eder batekin, zeina gona handi zuriz jantzia eta oihal-tarteki finez apaindua baitzegoen. Gainera, jaka txiki bat, txanotxo bat eta artilezko zapatatxo zeru-urdin batzuk zituen soinean.

Hurrengo goizean, zaila da azaltzea neskatoen ala amen harridura izan zen handiagoa, baina une bakoitzean behar diren baliabideak erabil daitezke interesatzen dena konbentzitzen saiatzeko.

Bere gutunean panpina eskatu zuen neskatoa txundituta geratu zen bere oparien artean topatzen ez zuelako; lehen aldiz gertatzen zitzaion hori, eta harriduraz galdetzen zion eten barik:

— Ama, txarto portatu al naiz, ba?

— Ez, maitea, ez horixe! Gaur gauean entzun dut bolada batean haizea zakar ibili dela. Nik uste dut panpinak hegan egingo zuela eta loratagiko zuhaitzen baten adar artean geratuko zela. Terrazan hiru gaztaina ere badaude, eta ziur nago haize-bolada horietakoren batean erori eta iritsi direla honaino. Ez kezkatu, gero aita joango da eta ekarriko dizu.

Neskatoa lasai geratzen zen bitartean, etxeko pertsona bat lasterka atera zen aurrekoaren antzeko beste panpina bat erostera, eta ia haizearen beraren abiaduran itzuli zen.

— Begira, laztana, uste genuena gertatu da. Zure panpina gaztainondo baten adar artean zegoen katigatuta.

Hori gertatzen zen bitartean, Juanita bere opariarekin liluratuta zebilen jolasean. Ez zuen inoiz Erregetan oparirik jaso, eta beso artean zeukanak soberan gainditzen zuen berak imajina zezakeen guztia. Aldi berean, ama jiratu egin zen begietatik zerizkion bi malkoak ezkutatzeko.



# TXANGO DESBERDINA, HASIERAN ZALANTZAZKOA BAINA AZKENEAN INTERES HANDIKOA (25-10-01)

7 urtarrila, 2026 | **por J.L. Aguirre**

## SARRERA

"Txango Desberdina" izena jarri diot, izan behar zuena ez zelako izan, ez behintzat aurreikusita zegoen guztian.

Desberdina, halaber, oro har bizitzari buruz hausnartzeko balio izan zuelako, baina baita egungo bizimoduari buruz ere, gure aitita-amamek eta haien arbasoek izan zutenaren aldean. Hori guztia Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa bisitatzearen ondorioz.

Eta desberdina Muñatoiz gazteluko bizilagunen -Gartzea Salazarkoen- bizimodu gorabeheratsuagatik ere, batez ere Lope kronistarenagatik, berari esker ezagutzen baitira Bizkaiko XV. mendeko gorabehera asko.

Eta taldearen bazkari oparoa Zugaztietako Leon XIII jatetxean, tipikoa bai, baina hala ere harritzen duena, babarrun-jate gozoaren osagarri erretiluak "sakramentuekin" iristen direnean.

Eguraldia lagun izan genuen egunean zehar. Bikain.

Eta bidaiek beti ekartzen dizkiete goraintziak lankide ohiei, eta, gura barik ere, batzuetan haurtzaroko bizilagunekin topo egiten duzu, zeinekin istorio partekaturen bat sarri izaten duzun.

Ba, bai, Petronor bisitatzera joan behar genuen eta ezin izan zen. Enpresa barruan egindako greba baten ondorioz ezin izan genuen bisitatu. Halako ikusmina piztu zuen bisita hark, non egun batzuk geroagorako, urriaren 7rako, beste txango bat antolatu baitzen, aurrekoaren berdina.. Aurreko arratsaldean jakin zen ezin zela bisita egin, beraz, irteera berregokitu egin behar izan genuen, eta askotan gertatzen den bezala, 'gaitz asko, onerako'.

Intermodaletik 9:00ak pasatxo irten ginen. Ikusten denez, Bilboko Udalak ez du uzten orain arte autobusa bete arte horretarako erabili ohi ziren kaleetako batean geldialdirik egiten, eta Intermodaletik irtetera behartzen du. Tira, badirudi horrela gutxiago eteten dela zirkulazioa, eta, aldi berean, Intermodala gehiago erabiltzen dela eta haren diru-bilketa handitu egiten dela.

## MUSKIZKO ESKOLA95. Gosaltzeko leku ona.

Eta Muskizko Eskola95era iritsi ginen, non gosari ederra, gozo edo gazia, edo bietatik, baikenuen zain norberaren nahieran. Pozik irten ginen. Presa barik, baina geldi egon gabe. Leku atsegina.

Eskola95 bertoko sustatzaileen ekimenari esker sortutako jatetxea da. Auzo-eskola zahar bat berritu zuten, eta hortik datorkio "eskola" izena, eta 1995ean jarri zuten martxan. Beraz, 30 urte daramatza funtzionatzen, eraikinaren nortasun historikoari eutsi diote, eta euskal janari tradizionala da beraien espezialitatea, ahal den guztietan bertoko ekoizleen produktuak erabiliz egina. Ekimen ona. Agendan izena gordetzeko leku bat, beste noizbait itzultzeko.

## EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA. GALLARTA.

Eta hala, Petronorrera ez, baina Gallartara jo genuen, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museora, eta esan behar da egon behar duen lekuan dagoela, bere kotarik altuen eta sakrifikatuenetara eroandako giza ahaleginaren sinbolo ikusgarria den 'Concha II' meatze enblematikoaren ondoan.

Asko harritu ninduen Meatzaritzaren Museoak, hainbat gauzarengatik. Hasi zutenen eta gaur egun ere Museoaren alde beharrean, hura hobetzen, zabaltzen, meatzaritzari dagozkion objektu gero eta gehiago han elkartzen jarraitzen dutenen merituagatik. Eta zinez, euskal industrializazioari eutsi zioten milaka beharginen sakrifizioaren ikusgarritasun-maila handia lortu dute Museoari esker.

Lanabesek, mineral-laginek, garraiobideek, dokumentueta bibliografia-funts ugarik eta dokumentu grafiko eta ikus-entzunezkoen funts batek osotutako artxibo historikoak memoria kolektiboaren gune bat eskaintzen diote Museoari, zeinak muturreko baldintzetan behar egin zutenei duintasuna eman eta aipaturiko industrializazioaren giza kostua gogorarazten baitu.

Gallartako Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa 1986an sortu zen, **Meatzaritza Museoaren Kultur Elkartean bildutako meatzari ohi eta auzotarren** ekimen pribatuari esker, eta tartean ziren pertsona nabarmenak, adibidez, **Carmelo Uriarte** meatzari ohia, meatzarien memoria gal ez zedin piezak batzen hasi zena. Ondoren, partikular eta familia askok jarraitu dute objektuak eta testigantzak ematen. Abanto-Zierbenako Udalak Gallartako hiltegi zaharra laga zuen batutako piezak hartzeko. Geroago, 90eko hamarkadan, kudeaketa instituzionalizatu egin zen, eta Meatzaritzaren Museoa Fundazioa sortu zen, baina betiere gizartearen parte-hartze handiarekin.

Barruan, zori onez, bertoko gidari bat izan genuen, istorio honen oinordekoa, eta hari esker iraganeko denbora haren gogortasunean murgilduz joan ginen. 1945eko NO-DO bat ikusteko aukera ere izan genuen, Bizkaiko burdingintza eta meatzaritzari buruzkoa. Irudiek lanbaldintza txar-txarrak erakusten zituzten, segurtasunik gabeak, zeinetan gizon eta emakumeek parte hartzen baitzuten. Hori horrela bazen 1945ean, zer izango ote zen berrogeita hamar urte lehenago, XIX. mende-amaieran, hobe ez pentsatzea ere! Beraz, egunean 12 ordu baino gehiagoko lan gogorraren aurrean, miseriazko soldatekin, barrakoi osasungaitzetan bizi eta nahitaez enpresen dendetan elikagaiak erosi beharrarekin… ez gaituzte harritzen garai hartako langileen matxinadek. Badakit konparazioak higuingarriak direla, baina zer pentsatua ematen du jakiteak zelan bizi izan ziren gure birraitaita-amamak duela oso denbora gutxi, eta zelan bizi garen gu orain, guztiagatik kexatuz hala ere, hausnartzeko moduko gauza da.

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoak bere helburuen artean bizimodu hori ez ahaztea baldin bazuen, hau da, ez ahaztea euskal industrializazioari eutsi zioten milaka beharginen, baita ere umeen, sakrifizioa eta sufrimendua, ba, benetan ondo lortu dute. Bisita horrek mugarri bat jartzen du, ikusi aurrekoaren eta ondorengoaren artean.

## “CONCHA II” ETA EKOETXEA MEATZALDEA

Museotik oso metro gutxira “CONCHA II” meatze historikoa dago, horrela hizki larriz. Ez da gutxiagorako. Amildegi ikaragarri bat aire zabalean, herri oso bat, Gallarta, sakrifikatu zuena, lekuz aldatu behar izan baitzuen, horrek dena esaten du. Izan ere, Museoaren maketa batean ikusi ahal izan genuen, eta hari esker errazagoa izan zen guretzat Gallarta zahar hura zelakoa izan zen irudikatzea.







Hurbildu ahal izan ginen Concha II-aren ertzera, eta ia-ia amildegian esekita, Ekoetxea Meatzaldea jarri zen martxan 2020an, pandemia betean, nahiz eta 2019an inauguratu zen. Barrura sartu eta hango gelak ikusi ahal izan genituen. Ingurumen-hezkuntza eta -sentsibilizaziorako zentroa da, Eusko Jaurlaritzaren ekimena. Meatze-ustiategi zaharraren ondare- eta paisaia-balioa aprobetxatzeko eraiki zen han, eta meatze-memoria egungo ingurumenkontzientziarekin lotzea du helburu. Konferentzietarako gune bat du, meategia ikusteko aukera ematen duen leihate handi-handiarekin. Zirraragarria da.





## ZUGAZTIETA. ZUGAZTIETA PARKEAN ZEHAR PASEOA.

Museoaren eta Concha II-aren ostean, Zugaztietara joan ginen. Zugaztieta 6 km eskasera dago, eta, denboraz ondo genbiltzanez, inguruan buelta bat oinez emateko aprobetxatu genuen. Orografia hori meatzariek naturan aspaldi izandako jardunaren emaitza da, eta irudi ederrak sortu dira bertan, ezezagunak lekua ikusi barik genuenontzat. Bidean, Zugaztieta parkea zeharkatu genuen, eta Lauhortz Itzel originalarekin topo egin genuen, zeina handikiro gailentzen baita sartuta dagoeneko muinoaren gainetik. Erakusgarri eskultorikoa, burdinak inguru hartan izandako historiaren emaitza. Egia esan, paisaiaz gozatu ahal izan genuen, eta argiak eta tenperaturak izugarri lagundu zuten horretan. Pozik iritsi ginen jatetxera.

Esan behar da, bigarren txangoan, hilaren 7koan, partehartzaileetako asko Peñas Negraseko ingurumen-interpretaziorako zentrora joan zirela, Ortuellako lurretan dagoen Ekoetxea Meatzaldeara. Hori eta Gallartakoa, CONCHA II





meategian, dira Eusko Jaurlaritzak Meatzaldean dituen bi ingurumen-egoitzak. Eguraldi bikainarekin, Peñas Negras eta Leon XIII jatetxea bereizten dituzten 2 kilometroak oso ibilaldi atsegina izan ziren, meatze-jarduerak eratutako antzinako ustiategiak eta urmaelak ikusten baitira, zeintzuk zirraragarriak diren eta berezko nortasuna ematen dioten inguruari.

## ZUGAZTIETA. LEON XIII JATETXEA.

Eta Leon XIII jatetxera joan ginen, aita santu izena du, noski. Ba, bai, eta badago horretarako arrazoi bat. Aita santu izan zen 25 urtez, 1878 eta 1903 bitartean. Langile edo behargínen bizi-baldintzez arduratu zen 1891ko “Rerum novarum” entziklikan; honela zioen bertan: *“Aberatsek eta ugazabek pertsonen duintasuna errespetatu behar dute eta bakoitzari bidezkoa dena eman behar diote, haien indarrak jasan dezakeen baino lan gehiago inposatu barik, ezta haien adinarekin eta sexuarekin bat ez datorren motakoa ere”*. Museoan egon eta denbora horretan Bizkaiko meatzarien bizi-baldintza izugarriez jabetu ostean, ez nau harritzen aita santu hura gogoan hartu izanak, jatetxeari izena emanez.

Eta otorduak -babarrun-jan tipiko eta oparoa, ohiko osagarri eta “sakramentuekin”, ardo on bat lagun, eta postrea- denok prest utzi gintuen bidaia jarraitzeko, Bizkaiko Erdi Arora bidaia, edo ia.

## MUÑATOIZKO GAZTELUA ETA LOPE GARTZEA SALAZARKOA: XV. MENDERA LEIHO BAT

Muskizera itzuliko gara. Egun hartan huts egindako Petronorreko instalazioei itsatsita, dotore agertzen da **Muñatoiz**ko gaztelua, Bizkaian leku paregabea. Ez da dorre





bat gehiago, **gure lurraldean gaztelu izena merezi duen gotorleku bakarra** bisitatzeko zortea izan dugu, kanpoko harresiekin eta Barbadun ibaiaren ondoan duen kokapen estrategikoarekin. Joan Lope Salazarkoak eta Ines Muñatonesek eraiki zuten XIV. mendean, botere ekonomiko eta militarraren gune izan zen, eta gaur egun **Interes Kulturaleko Ondasun** gisa mantentzen dugu.

Bertako gidari bat izan genuen, harresien barnetik eraman gintuena, eguraldiak zoragarria izaten jarraitzen zuen eta asko erraztu zuen azalpenetan luzatzea. Garai haiek oso nahasiak izan zirelako sentsazioa geratu zitzaigun, eta hala izan ziren, baina are gehiago Gartzea Salazarkoen familian bertan. Borroka eta traizioen sare trinko horrek zail egiten du bidaiaren kronika honetarako informazioa ateratzea, baina saiatuko naiz, nire zaletasun bibliofiloan oinarrituz eta testua Muñatones eta Gartzea Salazarkoen ikuspegi historiografikora bideratuz.

Leku horren alderdirik liluragarriena da **Lope Gartzea Salazar**koaren (1399-1476), Bizkaiko historiako pertsonaiarik garrantzitsuenetako baten, bizitzari lotuta dagoela. Lope bandokide noble bat izan zen, XV. mendean izan ziren leinuen arteko borroken protagonista. Bere bizitza indarkeriaz eta traizioz beteta egon zen, eta **bere seme Joanek Muñatoizko San Martin dorre horretan gatibu eduki zuen.** Xehetasun horrek, berez, garai hura zein nahasia izan zen erakusten digu, familia bereko kideek ere gogor egiten baitzieten aurre elkarri. Beranduago, Lope **Portugaleteko Salazar Dorrean** hil zen, bere semeek pozoituta, eta horrek bere patuaren tragedia osotzen du.





## Istoria de las bienandanças e fortunas

Muñatoizen egindako gatibualdian, Lopek bere obra handia idatzi zuen: *Istoria de las bienandanças e fortunas*.

- **25 liburu**ko kronika monumentala da, mundua sortu zenetik XV. mendearen erdialdera artekoa.
- **Bizkaiko lehen kronika idatzi handia da**, eta hari esker ezagutzen ditugu **bando-gerrak**, leinuen genealogiak eta eguneroko bizitzaren alderdiak.
- **Juan Manuel González Cembellin** historialariak, gai horretan aditu handienetako batek, nabarmendu du lan hori barik ezinezkoa izango litzatekeela XV. mendeko Euskal Herriko historia sozial eta politikoa xehetasunez berreraikitzea. Dorretxeei, landanobleziari eta herri-kulturari buruzko datu paregabeak ematen dizkigu

## 1884ko faksimile edizioa

XIX. mendean, oraindik erreprodukzio-teknika modernorik ez zegoenean, **obraren faksimile partzial** bat egitea erabaki zen, **Maximiliano Camarón** Liburutegi Nazionaleko zaharberritzailearen zuzendaritzapean.

- **200 ale** bakarrik inprimatu ziren, bi tintatan (gorria eta marroia), kalitate handiko paper berjuratuan.

- Teknikak **eskuzko tipografia** eta plantxa litografikoak konbinatu zituen, Erdi Aroko eskuizkribuaren kaligrafia eta apaingarriak imitatuz. Jatorrizkoarekiko fideltasuna grabatzailearen eta inprimatzailearen pultsuaren arabera zegoen.

- Prozesu motela eta garestia izan zen, artisauzko zehaztasun handia eskatzen zuena, eta, ondorioz, ale horiek bitxikeria bibliografiko eta arte-merezimendu handikoak dira.

XIX. mendean hainbesteko kategoria zuen proiektu bati ekiteak **jatorrizko eskuizkribuari ematen zitzaion balioa erakusten du:** *Istoria de las bienandanças e fortunas* Bizkai eta Euskal Herrirako lehen mailako ekarpen historikoa zela onartzen zen. Faksimile edizioa, berez, kronistari eta haren obraren garrantziari egindako omenaldia izan zen.

Laburbilduz, Muñatoizko gaztelua ez da harria eta harresiak bakarrik: Lope Gartzea Salazarkoak, bere semearen preso zenak, XV. mendera leiho bakarra irekitzen digun obra idatzi zuen eszenatokia da. Bere *Istoria de las bienandanças e fortunas* lanak gure iragana hobeto ulertzeko aukera ematen digu, eta 1884ko faksimile edizioak gogorarazten digu garai hartan ere jatorrizko eskuizkribua ahaleginez eta begirunez balioesten zela, Bizkaiko eta Euskal Herriko historiarako zuen garrantziaz jabetuta.

Gure bisitak pertsonaia eta leku batera hurbildu gaitu, zeinak Bizkaiko memoriatik bereizezinezko ikurrak diren. Espero dut kontakizun honek Muñatoizen elkarrekin ikusi genuena are gehiago baloratzen lagunduko dizuela.

## ETA BUELTA INTERMODALERA. BIDAIAREN AMAIERA.

Salazartarren bizitza gorabeheratsua entzun ostean, aurreikusitako ordua baino berrogei minutu beranduago, Intermodalerantz abiatu ginen berriro. Gorabehera handirik gabe iritsi ginen Bilbora, elkarri agur esan genion, eta bakoitza bere “gaztelura” itzuli ginen, non espero dugun ez gaituztela giltzapetu eta pozoituko Lope ospetsua bezala.

Egia esan, ustekabeko txangoa izan da hau, baina benetan, uste nuena baino aberasgarriagoa gertatu da, eta, beraz, pozik nago. Espero dut antzeko zerbait gertatuko zitzaiela nire bidelagunei; izan ere, egunero ez du batek denboran zehar horrela bidaiatzen, bostehun urtek banantzen dituzte Muñatoiz eta Bizkaiko meategiak, gure arbasoen bostehun urteko historia, eta denak bizkaitarrak. Benetako odisea izan da, eta bizirik atera gara erronkatik. Alajaina! Ez da gutxi.

Agur.



# Zain nauzu eta Aitortza

15 otsaila, 2026 | **por Fernando Urien**

## Zain nauzu

Jakin ezazu
etxera itzultzen zarenean
zain izango nauzula.
Ez diotsut
esku artean duzuna utzi
eta azkar etor zaitezen
adi-adi nire ondora,
ezta ere noizean behin
nitaz oroit zaitezen…
Baina jakin ezazu
zain izango nauzula.

Urrun zaudenean
eta beti joan doan
denboraz ahazten zarenean,
nitaz deus jakin ez arren
isilik nagoelako,
bidaiatzeaz nekatuta
etxera itzuli gura baduzu,
zain izango nauzu.

Nahiz eta guk eztabaidatu,
beti sesioan aritu,
eta elkarri deus esan barik…
edo larregi esanda,
azkenean bakoitza
geure bidetik joan,
jakin ezazu
etxera itzultzen zarenean
zain izango nauzula.

Egunen batean buruak huts egin
eta distraituta
nitaz zeharo ahazten bazara
eta gelditu barik ondotik igaro,
jakin ezazu
etxera itzultzen zarenean
zain izango nauzula.

Hori diotsut
ziur egon zaitezen
itzuli gura duzunean
beti zain izango nauzula.

Zeren eta, euri hotzak
guztiz blai egin
eta kazkabarrak aurpegian jo
eta min egiten didanean,
eguneko ezbehar horrek
hainbeste axola ez badit,
ziur nagoelako da
etxera itzultzen naizenean
beti zain zaitudala bertan.

## Aitortza

Ukitzen zaitudanean dar-dar egiten didate eskuek,
zure larruazalak nire ukitua arbuiatu
eta keinuak mindu eta haserretuko zaituen beldur.
Nahiz eta nire eskuek, luma arinek bezala,
maitekor ukitu zure gorputz osoa,
nahiz eta nire hatzek zure hankak marraztu
desira piztuz bihotzean,
nahiz eta ukituak zure zainetan pultsua bizkortu
eta amets baten atsegina sortu zure ariman,
beldur naiz, azazkal artean gordeta,
zelanbaiteko pozoia topatuko ote duzun.

Musu ematen dizudanean dar-dar egiten didate ezpainek
nire mihiak zure haserrea piztu
eta zure ahoan nire arnasa arbuiatuko duen beldur.
Izan ere, nahiz eta zure larruazala eta gorputz osoa
kitzikatuko duten maitasun-hitzak kantatu,
nahiz eta zure bularraren erritmoa bizkortu
eta arima zeruko izarren artean goratu,
nahiz eta ederra izan, une oro gozatu
eta zure ahoa, ezpainak eta arnasa asaldatu,
beldur naiz, xuxurlaka, deseginen aroma
hartuko ote duzun nire barnetik.

Ikusten zaitudanean dar-dar egiten didate begiek
zure begi-niniaren beldur, bere bila joatean
nirearekin topo egin eta ikaraz gordeko ote den.
Nahiz eta haien begiradek, zuhur eta samurrek,
bihotzean desira finak piztu,
nahiz eta murgildu eta eguzkitan dir-dir egin
pentsamenduak triste ikusten dizkizutenean,
nahiz eta esnatzean irrikaz begiratu
beren maitasuna zure gorputzean urduri bilatuz,
beldur naiz haien begiradaren hondoan
egun batean pentsamendu ilunekin topo egingo ote duzun.

Horregatik egiten dut dar-dar zure ondoan,
nahiz eta gorteatu, isildu egiten naiz,
eta nire isiltasunak zure atsegina piztea gura dut.
Horregatik espero dut zure baimena
zurekin besarkadan elkartzeko.
Horregatik guztiagatik eta desio zaitudalako,
ukitzen zaitudanean eskuek dar-dar egiten didate,
musuak ematen dizkizut arnasari eutsiz
eta begi-ninia ezkutatzen dut so egitera bazoaz.



# KONTSUMITZAILE ADITUAK GARDENTASUNA GALTZEA ONARTZERIK EZ DAUKAN MERKATUAN

1 martxoa, 2026 | **por Ana Alzaga- UCE EUSKADI**

Gure elkartetik gero eta kezka handiagoz ikusten dugu sektore askotan sendotzen ari den joera: merkatuak aurrera egiten du sofistikazioan, baina ez beti argitasunean. Eta anbiguotasun barik esatea komeni da: konplexutasuna ezin da inoiz merkataritza-estrategia onargarri bihurtu, horrek zailtzen badu ulertzea kontsumitzaileek zehazki zer kontratatzen duten eta zer baldintzatan egiten duten.

Esperientzia ekonomiko eta finantzarioa dutenek badakite merkatu osasuntsu bat oinarrizko printzipio ukaezin batean oinarritzen dela: gardentasunean. Ez ospe onerako keinu gisa, ez enpresa-diskurtsoaren elementu apaingarri gisa, baizik eta aukeratzeko benetako askatasuna egotea ahalbidetzen duen baldintza gisa. Informazio argi, konparagarri eta ulergarri barik, lehia ahuldu egiten da, eta enpresaren eta kontsumitzailearen arteko oreka ere bai.



Azken urteotan merkaturatze-ereduen eraldaketa sakona izan dugu. Behar dena bakarrik aukeratzeko gaitasuna mugatzen duten zerbitzu paketatuak, alderatzeko nahita zail edo gaitzak diren tarifa-egiturak, oharkabean igarotzen diren berrikuntza automatikoak, ikuspen gutxirekin jakinarazitako kontratu-aldaketak edo azkar erabakitzeko diseinatutako kontratazio-prozesuak, hausnarketarako ia tarterik uzten ez dutenak. Gero eta hedatuago dauden praktika horiek ezin dira normalizatu.

Berrikuntza positiboa da. Digitalizazioak efizientzia, lehiakortasuna eta aukera berriak ekarri ditu. Baina modernitatea ezin da ulermenaren kontura eraiki. Kontratu bat ulertzeko aparteko ahalegina egin behar denean, arazoa ez da kontsumitzailearena, merkatuarena berarena baizik.

Horri fenomeno bereziki garrantzitsu bat gehitu behar zaio: datuaren ekonomiak merkataritza-harremanaren ohiko arauak aldatu ditu. Gaur egun ez gara bezeroak bakarrik; portaerak aurreikusteko eta erabakiak bideratzeko gai diren eredu prediktiboen bidez aztertutako profilak ere bagara. Gaitasun teknologiko hori, berez, ez da eztabaidagarri edo zalantzazkoa. Onartezina da pertsonalizazioaren ondorioz konparatu edo alderatzea zailagoa izatea, eskaintza opaku bihurtzea edo kontsumitzaileak nekez ikusi ahal izatea zergatik aurkezten zaion proposamen jakin bat eta ez beste bat.

Gure elkartetik argi berba egin gura dugu: gardentasuna ez da negoziagarria.

Eta ez da negoziagarria, konfiantza haren mende dagoelako, eta, konfiantza barik, ez dagoelako sendo edo jasangarria izan daitekeen sistema ekonomikorik. Hori ulertzen duten enpresek, bezeroak babesteaz gain, beren markaren balioa eta dihardutteneko merkatuaren egonkortasuna ere babesten dituzte.

Beste joera kezkagarri bat ere ikusten dugu: gero eta presio handiagoa azkar erabakitzeko. Berehalako deskontuak, azken aukerako abisuak edo berehalakotasuna saritzen duten kontratazio-prozesuak… eta horiek guztiek ageriko logika bati erantzuten diote: zenbat eta gutxiago hausnartu, orduan eta txikiagoa da eskaintzen dena zalantzan jartzeko probabilitatea. Joera horren aurrean, irmo defendatzen dugu kontsumitzaileak presa barik, informazio guztia mahai gainean jarrita eta aukeraketa bakoitzaren inplikazioen kontzientzia osoarekin erabakitzeko duen eskubidea.

Komeni da funtsezko zerbait gogoratzea: esperientziak kontsumitzailearen indargune handienetako bat izaten jarraitzen du. Aztertzeko, galdetzeko, kontrastatzeko eta pizgarri komertzialek arrastaka ez eroateko gaitasuna hainbat hamarkadatan merkatuaren egonkortasunari lagundu dion kultura ekonomikoaren parte da. Jarrera kritiko hori ez da oztopo aurrerapenerako, baizik eta aurrerapena desbideratzea saihesten duena da, hain zuzen ere.

Gure zeregina, elkarte legez, zalantza bakoa da. Ez gaude soilik kontsumitzaileei laguntzeko gatazka bat sortzen denean. Estandar altuagoak exijitzeko gaude, merkatuaren argitasuna higatzen duten praktika edo jardunbideak seinalatzeko eta gogorarazteko jokoaren arauak zailtasun barik uler daitezkeenean bakarrik dela lehia erreal edo benetakoa.

Merkatuak eboluzionatzen jarraituko du, baina muga batzuk ez lirateke gurutzatu behar. Sofistikazioa ezin da opakutasunaren sinonimo izan. Teknologia ez da erabili behar informazioa desitxuratzeko. Eta konplexutasuna ez litzateke inoiz lehiarako abantaila bihurtu behar.

Izan ere, azken batean, kontsumitzaile zorrotza ez da arazo merkatuarentzat; bere kalitate-bermerik onena da. Kontsumitzaileek jarrera informatua eta kritikoa duten lekuetan, merkatua indartu egiten da. Gardentasunak atzera egiten duen tokian, denek galtzen dute.

Gure elkartetik ideia sinple bezain ezinbesteko bat defendatzen jarraituko dugu: aukera gehiagok ulertu ahal direnean bakarrik adierazten dute askatasun handiagoa. Eta kontratatzen dena ulertzeak ez luke pribilegio bat izan behar, kontsumo-harreman ororen oinarri eztabaidaezina baizik.

# NORK ORDAINTZEN DU TRANTSIZIO ENERGETIKOA?

7 martxoa, 2026 | **por Ana Alzaga- UCE EUSKADI**

Trantsizio energetikoak erritmo onean egiten du aurrera Euskadin. Energia berriztagarriez, garraioaren elektrifikazioaz eta asmo handiko helburu klimatikoez egiten da berba. Hala ere, titular handietatik haratago, gero eta familia gehiago kezkatzen dituen gai bat dago: prozesu horrek etxeko ekonomian duen benetako eragina.

2024an, EAEko etxe baten batez besteko faktura energetikoa urteko 2.100 eurotik gorakoa izan zen. Zifra horretan sartzen dira elektrizitate-gastua eta, neurri handi batean, erregaietara bideratutakoa. Familia askorentzat, zenbateko hori ez da datu abstraktu bat, eguneroko bizitzan oinarrizko erabakiak baldintzatzen dituen hileko karga bat baizik.

Errenta-mailaren araberako aldeak argiak dira. Diru-sarrera gutxieneko familiek guztizko gastuaren % 4 baino gehiago bideratzen dute elektrizitatera; errenta handiena dutenetan, berriz, ehuneko hori % 1,5 ingurukoa da. Arrakala hori ez da esplikatzen errenta txikienek energia gehiago kontsumitzen dutelako, baizik eta abiapuntuan baldintza okerragoak dituztelako.

Oro har, baliabide gutxien dituzten etxeak etxebizitza zaharragoetan eta efizientzia txikiagokoetan bizi dira, isolamendu termiko okerragoarekin, berokuntza-sistema zaharkituekin eta errendimendu txikiko etxetresna elektrikoekin. Gutxieneko erosotasun edo konfort-baldintzak lortzeko, energia gehiago gastatu behar dute, baina, aldi berean, epe ertain eta luzera kontsumoa murriztuko luketen hobekuntzetan (hala nola isolamenduan, leihoen aldaketan edo ekipoen aldaketan) inbertitzeko gaitasun ekonomiko txikiagoa dute.

Horrez gain, faktura elektrikoaren zati handi bat kostu finkoek —potentzia kontratatuak, bidesariek eta zergek— osotzen dute, eta kostu horiek apenas dauden kontsumoari lotuak. Kostu horiek proportzionalki askoz pisu handiagoa dute errenta baxuen aurrekontuetan, eta, beraz, kontsumoa ahalik eta gehien murriztuta ere, elektrizitateak ahalegin handia eskatzen jarraitzen du.

Aitzitik, errenta handiena duten familiak etxebizitza efizienteagoetan bizi ohi dira, eta gaitasun handiagoa dute birgaitze energetikoan, autokontsumoan edo etxetresna elektriko efizienteetan inbertitzeko. Horrek elektrizitatearen pisu erlatiboa murrizten du guztizko gastuan, nahiz eta elektrizitatearen kontsumo absolutua are handiagoa izan daitekeen.

Desberdintasun horiek bizilekuak areagotzen ditu. Landa-eremu edo eremu periferiko askotan, non errenta baxuenak dituzten etxeak batzen diren, etxebizitza-parkearen antzinatasunak eta energia- edo mugikortasun-alternatibarik ezak bizi-kostua handitzen dute eta energia-trantsiziora egokitzea zailtzen dute.

Zailtasun horiei fenomeno bat gehitzen zaie, ez hain agerikoa baina oso hedatua: nahi gabeko edo gura bako kontsumo txikia. Pertsona askok berokuntza murrizten dute, etxetresna elektrikoen erabilera mugatzen dute edo konfort termikoari uko egiten diote fakturaren beldur direlako. Ahalegin behartu hori ez da beti estatistiketan agertzen, eta efizientzia-irudi distortsionatua eman dezake, baina zaurgarritasun-egoerak ezkutatzen ditu.

Horrek ez du esan nahi trantsizio energetikoa beharrezkoa ez denik. Ezinbestekoa da emisioak murriztea eta eredu jasangarriagorantz aurrera egitea. Baina aukeratutako bidea garrantzitsua da. Abiapuntuko alde edo desberdintasun horiek zuzentzen ez badira, neurriz kanpoko ahalegina egin beharko dute hori onartzeko gaitasun gutxien dutenek.

Trantsizio energetikoa ezin da neurtu soilik teknologiari edo ingurumenari dagokionez. Bere benetako arrakasta pertsonen bizitza hobetzea eta desberdintasunak murriztea lortzearen araberakoa izango da, batez ere baliabide gutxiago dituztenen artean.





# Kontsumoaren superheroiak: erabakitzeko ahalmena

13 martxoa, 2026 | **por Ana Alzaga- UCE EUSKADI**

*En el Día Mundial de las Personas Consumidoras es momento de recordar una realidad que a menudo se olvida: el mercado no lo dirigen las campañas de marketing, sino las decisiones de millones de personas que consumen cada día.*

Cada 15 de marzo se celebra el Día Mundial de las Personas Consumidoras. Más allá de una fecha simbólica, esta jornada invita a reflexionar sobre una idea fundamental: **las personas consumidoras tienen un enorme poder en el funcionamiento del mercado.** Aunque a menudo parezca lo contrario, el mercado no lo sostienen únicamente las empresas o las grandes marcas, sino las decisiones que toman millones de personas cada día al comprar… o al decidir no hacerlo.

En un contexto dominado por grandes campañas publicitarias, estrategias de marketing cada vez más sofisticadas y algoritmos que tratan de anticiparse a nuestros intereses, puede parecer que las tendencias de consumo ya están decididas antes incluso de que nosotros actuemos. Sin embargo, la realidad es otra: **cada decisión de consumo envía una señal clara a las empresas sobre qué tipo de productos y de mercado queremos apoyar.**

Podría decirse, sin exagerar, que cada consumidor es, en cierta medida, **un superhéroe del mercado.** No lleva capa ni aparece en los anuncios, pero cada vez que compara antes de comprar, decide no adquirir algo innecesario o apuesta por productos más duraderos, está influyendo directamente en cómo funciona el mercado.

## Cuando el marketing intenta decidir por nosotros

Ese poder, sin embargo, no siempre se ejerce en condiciones de equilibrio. El mercado actual está profundamente influido por estrategias comerciales diseñadas para acelerar nuestras decisiones de compra. Mensajes como "solo hoy", "últimas unidades" u "oferta flash" buscan generar urgencia. Las campañas constantes de lanzamiento alimentan la sensación de que siempre necesitamos algo nuevo.

El objetivo es claro: **fomentar un consumo rápido e impulsivo.** Sectores como la moda o la electrónica lo ilustran bien: colecciones que cambian constantemente, dispositivos que parecen quedar obsoletos en poco tiempo o productos que se sustituyen antes de haber agotado su vida útil.

Este modelo tiene consecuencias. Consecuencias económicas para muchos hogares y consecuencias ambientales cada vez más evidentes. La producción masiva y la corta vida útil de muchos productos están generando un volumen de residuos difícil de sostener.

Por eso es necesario **tomar conciencia y decir basta.** Consumir no debería ser un acto automático guiado por tendencias o modas aparentemente inevitables. **Consumir es, en esencia, una decisión.**

## Consumir también es una decisión sostenible

Hablar hoy de derechos de las personas consumidoras también implica hablar de sostenibilidad. El modelo basado en comprar, usar y sustituir rápidamente está demostrando ser insostenible desde el punto de vista ambiental y cada vez más difícil de sostener para muchos hogares.

Frente a ello, cada decisión de consumo puede convertirse en una herramienta de cambio. Apostar por productos duraderos, reparar antes de sustituir, reutilizar o simplemente reflexionar antes de comprar son gestos que también transforman el mercado.

Consumir no es solo satisfacer una necesidad inmediata. **Consumir también es decidir qué modelo de producción y de sociedad queremos apoyar..**

Desde organizaciones como la **Unión de Consumidores de Euskadi** trabajamos precisamente para informar, asesorar y defender los derechos de las personas consumidoras, pero también para promover una ciudadanía crítica y consciente de su poder.

El Día Mundial de las Personas Consumidoras nos recuerda algo esencial: **el mercado no debería decidir por nosotros.**

Porque cuando las personas consumidoras se informan, cuestionan y deciden con criterio, el mercado cambia. Y quizá ese sea el mayor recordatorio de este 15 de marzo: **no son las campañas de marketing quienes tienen el poder, sino millones de decisiones cotidianas tomadas por personas conscientes de sus derechos.**

ANA ALZAGA
SECRETARIA GENERAL UCE EUSKADI

acuerdo

# EZTABAIDA BARETASUNEAN



6 maiatza 2026 | **por Juan Carlos Ruiz de Villa**

Opor egun batzuk Sorian eta arratsalde batean Medinacelira bisita. Ismael gure gidariak kontatu zigun Medinaceli hiria ezaguna dela hainbat arrazoirengatik, eta lehenengo gauza sekulako Arku Erromatarra izan zen, hiriaren nortasun-ikurra. Gero Kristo ospetsuari buruz hitz egin zigun. Baina ez zen Medinacelikoa eta jatorrizkoa ere ez zegoen han; benetakoa Medinaceliko Gure Aita Jesusen Basilikan dago Madrilen, Medinacelin erreplika baino ez dago.

Azaldu zigun, halaber, Almanzor (edo Al-Mansur) buruzagi arabiarra, Calatañazorreko batailan garaitua eta zauritua 1002. urtean, Medinacelira joan zela aterpetzera, eta han hil zela zaurien ondorioz.

Hiriaren goialdean, buruzagi arabiarraren busto bat dago. Calatañazorren galdu zuen Almanzorrek bere danborra, hau da, bere alaitasuna.

Gure gidari Ismaelek, gizon atsegin eta dibertigarriak, pasadizo bat kontatu zigun: Arratsalde bero haietako batean, eguzkiak bere izpiak eta bakea eztia bezala soroen gainera botatzen dituenean, bera gidari izateko prestatzen ari zenean, Medinaceli gainera igo omen zen hiria ikustera eta hari buruz ikastera. Eta bertako hiru herritarrekin topo egin zuen han, eserita, lasai, berba egin barik, urrutira begira eta erabateko bakean zeudela. Bat-batean zaunka gorgarri batzuk entzun omen ziren, zaunk, zaunk, zaunk!!! Ezarritako bakea hautsiz, handik gutxira txakur bat agertu zen, zaunk, zaunk, zaunk!!! Pixkanaka, ordea, aldenduz joan zen, zaunkak ere isildu eta bakea itzuli zen.

Hamabost bat minuturen buruan, herritarretako batek esan omen zuen: "Juanaren txakurra da", erabateko isiltasuna, eta bakea nagusitu zen berriro landan. Beste hamahiru bat minutu igaro ziren, eta herritarretako beste batek esan zuen: "Ez! Alfonsoren txakurra da", berriro isiltasuna, isiltasun erabatekoa eta berriro bakea nagusi airean. Beste hamar minuturen, edo agian hamabost minuturen, buruan, azken herritarrak zutitu eta bota omen zuen: "Banoa! Ezin ditut zuen eztabaidak gehiago jasan!", eta halaxe, lasai eta atzera begiratu barik, urrundu egin zen, beste biek kalma osoan urrutira begira jarraitzen zuten bitartean. Eta berriro Baretasuna itzuli zen landara.

# BGAEen PRESTAZIOEN fiskalitatea Bizkaian

17 martxoa, 2026 | **por asojubi**

**La Normativa tributaria del IRPF de Bizkaia** está recogida en la Norma Foral 13/2013 de 5 de noviembre, se trata de una Norma que se va revisando y actualizando. El pasado año 2025 se revisó y actualizó la fiscalidad de la PREVISIÓN SOCIAL a través de las NORMAS FORALES 2/2025, de 9 de abril en su CAPÍTULO TERCERO y 5/2025 de 12 de diciembre en su Disposición Final Cuarta.

- **NORMA FORAL 13/2013** «Actualizado a fecha de: 01/01/2026" https://www.bizkaia.eus/documents/880307/15187815/ca_13_2013.pdf?idioma=CA

A su vez la Normativa tributaria del IRPF de Bizkaia recogida en la Norma Foral 13/2013 de 5 de noviembre requiere de un **Reglamento del IRPF**, que está recogido en el DECRETO FORAL 47/2014 y que al igual que la Norma se revisa y actualiza. Al igual que la Normativa, el pasado año 2025 se revisó y actualizó la fiscalidad de la PREVISIÓN SOCIAL a través del DECRETO FORAL 100/2025, de 13 de noviembre en su TÍTULO II – PREVISIÓN SOCIAL.

- **DECRETO FORAL 47/2014** "Actualizado a fecha de: 01/01/2026 https://www.bizkaia.eus/documents/880307/15187815/ca_47_2014.pdf

Incorporamos a continuación 2 documentos de la Normativa tributaria del IRPF de Bizkaia y del Reglamento del IRPF, en los que **hemos resaltado las modificaciones fiscales** que desde el pasado 1 de enero de 2026 afectan a contribuyentes de Bizkaia por las PRESTACIONES de EPSVs.

- **NORMA FORAL – Modificaciones que afectan a PRESTACIONES de EPSVs**
- **Reglamento IRPF Bizkaia – Modificaciones que afectan a PRESTACIONES de EPSVs**

# SAGARDOTEGIRA TXANGOA 2026



Torre de los Varona

30 martxoa, 2026 | **por Juan Mª Lersundi Gacetabeitia**



Joan den 2026ko otsailaren 24an, eguraldi bikaina lagun (ez dakit ziur Elorrioko moja domingotarrenean dozena bat arrautza utzi zen edo ez), zorioneko jubilatu batzuek eta haien laguntzaileek txango bikaina egin genuen turismoari nahiz gastronomiari dagokionez, Añanako Gatz Harana, Varonatarren Dorrea eta Trebiñu sagardotegia bisitatuz.

9:00etan, ordu-orduan, txangoa egiteko izena eman zuen jende guztia geltoki intermodalean zegoen autobusera sartzeko prest. Txangoa hasteko tokia aldatu izana egokia dela uste dut, garraio publikoaren bidez bertaratzeko aukera ematen baitigu denoi, Bilbon eta inguruetan bizi direnei zein Lurralde Historikoaren bazterretan bizi garenoi.

Taldea bi autobusetan banatu beharra zegoenez, ez genuen aukerarik izan aurreko txangotik ikusi bako jendearekin berriketaldi bat egiteko sagardotegira iritsi arte. PENA. Busen arteko komunikazioa aztertu beharko litzateke.

Autobus bakoitzera igotzean, xehetasun pixka batekin jakinarazi ziguten zelan antolatu zen txangoa, zituen ezaugarriak eta antolaketa hobea izateko aholkuak.

Aldi berean, eta nahiz eta agian harira ez etorri, Haziako zuzendaritzan gure ordezkariak hautatzeko bozketetan parte hartzearen garrantzia aipatzeko aprobetxatu zen, eta nik kontatu egiten dut, lankide ohiekin kanpaina egitea tokatu zaidalako eta baten batek erantzun didalako: “Eta hori, zertarako?”. Ba, hori da beste batzuek, Elkartekoak ez direnek, gure intereseko gaietan gure ordez erabaki beharrik izan ez dezaten. Barkatu esku-sartze hau, baina ezin nintzen isilik geratu.

Gure autobusean A-68 errepidetik jo genuen eta Gesaltza Añana herrira iritsi ginen, non Plaza ostatuan patata-tortillak, croissantak, opilak eta abar zeuden gure zain, kafesne eta guzti. Lokalean estu samar egon arren, nola hala moldatu ginen eta gosariaz gozatu genuen.

Gosaria amaitu ostean, bi taldetan banatu ginen, arkitektura, paisaia, arkeologia, geologia eta historia aldetik munduko gune berezienetako bat bisitatzeko. Niri gustatu zitzaidan gure gidari Aitorrek (txankletetan) emandako definizioa, 7.000 urte baino gehiagoko eta egoera eta bilakaera ugari izandako “gatz-fabrika” batean geundela esan baitzuen. Garrantzitsuenetako bat gatza ekoizteko sistema aldatzea izan omen zen, suaren beroak eragindako ur-lurruntzetik eguzkiarekiko esposizioagatik lurruntzera igarotzea.

Gaur egun badago gune honen destinoa zuzentzen duen fundazio bat. Argibide gehiago nahi dituztenei web-orri honetara jotzea gomendatzen diet: https://www.vallesalado.com/eu/. Merezi du.

Bisitaren ostean, autobusera igo ginen Villanañe herrian dagoen Varonatarren jauregi-dorrera joateko. Araban hobekien kontserbatutako gotorlekuetako bat da.

Anekdota legez, esan behar da Danik, egokitu zitzaigun gidariak, adierazi zigunez, Villanañeko biztanleei *“callarranas”* deitzen zaie, igelak isilarazten zituztelako bertoko jauntxoak atseden hartu eta lo egiteko aukera izan zezan.

Varona izena, dirudienez, emakume batekin, Maria Ruiz Pérezekin, jaio zen Alfontso I.a Borrokalaria garaitu baitzuen, eta ho-




























rregatik honek erabaki zuen hari bere ausardiagatik Varona deitu behar zitzaiola.

Jauregiak, non XIV. mendearen amaieratik, oso garrantzitsua izan den familia horren ondorengoak eten barik bizi izan diren, merezi du bisitatzea, familia horri lotutako objektu eta dokumentu asko baitaude bertan.

Argibide gehiagotarako: https://www.valdegovia.com/eu/index.asp

Aurreko bi bisita turistikoen ostean, antolatzaileek aukera bat eman nahi izan zioten Arabako sagardoari, eta, horretarako, TREBIÑU sagardotegira joan ginen: Askartzan dago, Trebiñuko konderrian.

Lehenik eta behin, esan dezakegu oso arraroa dela Gipuzkoa edo Bizkaitik kanpo sagardotegi bat aurkitzea; hala ere, Trebiñuko Konderrian (Burgos) badago sagardotegi bat, Arabako Sagardoa jatorri-deitura edo sor-markakoa, eta iristea oso gaitza den eskualdeko errepide estu eta bihurgunetsu batetik joan behar da bertara.

Baina, hala eta guztiz ere, esan dezakegu bizi izan genuen esperientzia oso atsegina izan zela, bai lokalaren ezaugarriengatik, bai zerbitzuagatik. Sagardotegiko menu tipikoa bikaina izan zen, eta niretzat nabarmentzekoak bakailao-tortilla eta txuletak, puntu-puntuan zeuden eta.

Otordua amaituta, autobusera igo ginen Bilbora itzultzeko, lagunarte alaian, abiapuntu izan genuen leku berera.

Juan Mª Lersundi Gacetabeitia
Elorrio (Bizkaia)

**P.D.** Pentsatzen dut agian bazkalostean kantua sustatu beharko genukeela jendeari festa girotzeko kantutegi bat emanez. Hor utziko dut proposamena.



# SAGARDOTEGIAZ ETA KULTURAZ (ETA ALDERANTZIZ)

Torre de los Varona

EDUJOSER (Eduardo J. Ramos) y está bajo Licencia Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivadas 4.0 Internacional

26 martxoa, 2025 | **por Ricardo Naveda**



2016az geroztik urtero legez, merezi ez ditugun elkartekide horiek gastronomia- eta kultura-egun bat antolatu zuten, eta –aurreratzen dizuet– erabateko arrakasta izan zuen. Eta pentsa 110 jatun –horixe izan zen txangorako izena eman zutenen kopurua– bazkatzea ez dela lan erraza, e!

Tira, goazen harira! Data –otsailak 24– aukeratu zenetik arrakasta aurreikusia zegoen; izan ere, lehenengo sagardotegi-egun arrakastatsua ere, 2016koa, otsailaren 24an izan zen. Iragarpen ona!

Aurrerago, egunean zehar egindako jarduerak zehaztuko ditut, baina dagoeneko aurreratzen dizuet Gaubea, Espejo, Trebiñu… inguruan ibili ginela.

Pentsa dezakezuen legez, 110 morrosko, gizon-emakume, mugitzeko 2 autobus behar izan ziren. Eta han zeuden, ordu-orduan, Bilboko Intermodal distiratsuan, non hasten baitzen eguna programa honekin, oro har esanda eta bi taldetan antolatuta:

10:30ak aldera, esleitu zitzaigun ostalaritza-establezimenduan (Gaubeako eremuan) gelditu zen talde bakoitza. Bertan, bankako erretiratuoi baino gehiago eraikuntzako peoiei zegokien hamarretakoa egin genuen; baina tira, medikuari ere ez genion konturik eman behar, ezta?

Otorduaren ostean, autobusera igo eta programatutako bi bisitak egitera joan ginen: Varonatarren dorrera (Espejotik gertu) eta Añanako Gatz Haranera. Bata zein bestea oso jarduera interesgarriak izan ziren, neurri handi batean gidarien profesionaltasunari esker, oso didaktikoak eta atseginak izan baitziren.

Bi bisita horien ondoren, larruazalaren poro guztietatik kultura zerigula, eta eguerdiko ordu biak gerturatzen direnean eta




Antonio Resende - autocaravanaspt.blogspot.com/2015/07/tour-de-france-e-nao-so-parte-iii.html - creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.

**Valle salado de Añana**

bazkari on bat zain dugula dakigunean jartzen zaigun begirada horrekin, Askartzan (Trebiñu konderrian) dagoen Trebiñu sagardotegira bideratu ginen, non oso tratu atsegina eta oso profesionala emateaz gain, menu ikusgarria atera baitziguten: zer esan txistorrarekin eman ziguten talotxoaz? Eta bakailao-tortilla heze-hezeaz? Eta bakailaoari berari buruz? Baina amaiera ezin bikainagoa azienda larriaren txuletatzarrak eman zion, ezin hobea baitzegoen. Mahai askotan entzun ahal izan zen 2016tik hona bisitatu diren 11 sagardotegietatik onenetako bat izan zela, onena izan ez bazen.

Eta bapo bazkaldu ostean, berriro autobusetara eta Bilbora abiatu ginen, arratsaldeko zazpiak aldera iritsi ginelarik bertara.

Eta hori guztia 67 euroan! Aizu, ba al da gehiago ematen duenik?

# Udako loreak

## Tamiki Hara-rena




11 abril, 2026 **por Jorge Ibor**

### LIBURU BAT.

*Flores de Verano* (Udako loreak), Tamiki Hara-rena.

### LELO BAT.

"Ezin da onartu munduan arma nuklearrak egotea. Ezin dira militarismoa eta erasoa onartu" (Fernando Cordobés).

### TESTU BAT.

> *"Gizateria kristal apurtua bezalakoa iruditzen zait. Mundua erotuta dago.*
>
> *Gizateria! Gizateria! Gizateria! Ezin dut ulertu. Ez dut lortzen berarekin konektatzea. Dar-dar egiten dut.*
>
> *Gizateria! Gizateria! Gizateria! Ulertu nahi dut. Konektatu egin nahi dut. Bizi egin gura dut"*
>
> *(Tamiki Hara. Chinkonka).*

### IDAZLEA ETA LIBURUA

Tamiki Hararen liburuari buruzko lehen aipamen batekin (1) topo egin nuenean, nire lagun on Hirokori galdetu nion ea merezi al zuen irakurtzea. Haren erantzuna argia izan zen:

> *"Flores de Verano liburua ez dut irakurri; interesgarria da, baina bonba atomikoaren gaiak deprimitu egiten du.*
>
> *Baina jakin behar duzu Hiroshiman zer gertatu zen"*

Tamiki Hara (1905.11.15 – 1951.03.13) Hiroshimako bonba atomikotik bizirik atera zen idazle japoniar bat izan zen.

Maila ertain altuko familia batekoa izanik, unibertsitate-ikasketak literaturara bideratu ahal izan zituen. Poesian espezializatua, idazle profesionala izatera iritsi zen.

Oso maiteminduta egon zen emaztearekin ("Galduko banu, beste urtebetez bakarrik biziko nintzateke poema triste eta ederren bilduma bat idatzita utzi ahal izateko").

Sadae (hala zuen izena emazteak) tuberkulosiaz gaixotu zen 1939an, eta eritasun horren ondorioz hil zen 1944an. Haren heriotzaren lehen urteurrena baino lehentxeago, AEBek historiako lehen bonba atomikoa bota zuen Hiroshima hiriaren gainera (1945.08.06), eta hilabete gutxiko epean, Tamikik trilogia bat idatzi zuen gertakariari buruz. Trilogia hartatik artikulu honi izenburua ematen dion liburua nabarmenduko dut: *Flores de Verano* (Udako loreak).

Egileak, modu sinple, errealista eta gizatiarrean, aurreko hilabeteak, gertakariaren eguna eta hurrengo egunak deskribatzen ditu bertan.

Egileak bere buruaz beste egin zuen trenbidera botata. Egun batzuk lehenago idatzi zuen:

> *"Normalean igarotzen naizen bidegurutzean, sarritan haren ondoan itxaron behar izaten dut langa jaisten denean… Gero, konboia oso azkar igarotzen da. Arrazoiren batengatik, abiadura hark nire kezka guztietatik libratzen nau. Baliteke jeloskortasuna sentitzea gehiago luzatu barik bere bizitzaren kargu egiteko gai den jende horrekiko".*

Liburua, laburra (120 orrialde inguru), oso erraz irakurtzen da, argumentuan murgiltzen zaitu eta usteko ez zenukeen mugetaraino hunkitzen zaitu..



**Zoragarria iruditzen zait.**

## NIRE AURREKARIAK GAI HONETAN.

Asko irakurri dut Japoniari buruz. Ikasi dut zein gogorra izan den bizitza Japoniako herriarentzat, shogunek, samuraiek eta, beti, erlijioek menderatu zuten gizarte feudalak esklabo bihurtua egon zela esan genezake ia.

Meiji Iraultzak (1868) herrialdearen irekiera eta ustezko demokratizazioa ekarri zuen, laster militarismoak, muturreko nazionalismoak eta erabateko supremazismoak azpiratu zutena, zeinak bere bizitzeko era munduko onena zela eta gainerako gizateriari inposatu behar zitzaiola saltzen baitzuen.

2023ko azaroan Japonia bisitatu nuen berriro, eta orduan bai, Hiroshimara joan nintzen.

Mingarria izan zen ikustea Genbaku Domo, bonbardaketaren inguruan zutik geratu zen eraikin bakarra; oroimen-plakak (haietako bat Tamiki Hara-ri eskainia); ikasleen omenezko monumentua, kurriloen origami koloretsuekin apaindua; Sadako Sasaki-ren omenezko estatua: bonbardaketa gertatu zenean bi urte zituen eta 1955eko urrian hil zen 12 urte zituela, erradiazioak eragin zion leuzemiaren aurka bere indar guztiarekin borrokatu ostean. Hari buruz idatzi nuen:

> *"Japoniako elezahar sintoista baten arabera, pertsona batek kurriloen 1.000 origami baino gehiago egiten baditu, eskatzen duena ematen omen diote jainkoek. Bere burua osatu nahian, lan edo beharrari ekin zion eta 1.400 baino gehiago egin zituen.*
>
> *Jainkoek huts egin zioten".*

Gaur egun, oroitzapen-monumentuaren aurrera eroaten dituzte eskola-adineko haurrak. Bertan kurrilo berriak, beren ume-eskuekin eginak, uzten dituzte egunero.



## DATU BATZUK.

1945.08.06an, historian lehen aldiz, bonba atomiko bat jaurti zen hiri bateko –Hiroshima– biztanleen aurka.

Iturri gehienen arabera, uste da 120.000 pertsona inguru hil zirela une hartan bertan. Kontuan izan honako hauek:

- Erroldak ez ziren orain bezain zehatzak.
- Jende asko lurrundu egin zen eztanda edo leherketaren unean, eta ez zen haien arrastorik geratu.
- Hurrengo bost urteetan, Estatu Batuetako aginte interbentzionistaren zentsura irmoak eragotzi egin zuen datuan sakontzea, eta informazio asko galdu zen.
- Are gehiago, zentsura hark eragotzi egin zuen ohartaraztea bizilagunek ez zutela erradioaktibitate handiko eremura itzuli behar, eta, ondorioz, kaltetuen benetako kopurua, zehaztu ezinezkoa, are handiagoa izan zen.
- Beste ondorio kaltegarri bat ere izan zuen. Ez zitzaien utzi osasun-beharginei ondorioak argitaratzen, ezta Nagasakiko lankideekin trukatzen ere, eta hiru egun geroago hantxe bota zuten bigarren bonba atomikoa. Horrek areagotu egin zuen hildakoen kopurua.



## NIRE GOGOETAK.

- Pertsonen eskubide lehena eta handiena bizitzeko eskubidea da.
- Inork ez du beste inor hiltzeko eskubiderik.
- Inork ez du gerra bat hasi behar, ez errepresio hilgarri bat ezarri behar, ez besteen bizitzarekin jolastu behar.
- Inork ez dio lagundu behar beste pertsona batzuei bizia kentzea, errugabeak hiltzea, hiriak bonbardatzea erabakitzen duenari. Inork ere ez.
- Hiroshimako zenotafioaren kondaira gorabehera (2), uste dut giza zentzugabekeriak oraindik ere beste bonba atomiko bat botako duela.

**1.** *Florentino Rodao-ren "La soledad del país vulnerable. Japón desde 1945. (Memoria crítica)" irakurtzen ari nintzela izan zen.*

**2.** *Bakearen aldeko zenotafioan, bonba atomiko bat jaurtitzearen ondorioz hildako guztien izenekin kutxa bat dago. Kaxaren estalkian hau irakur daiteke: "Har ezazue atseden bakean. Errorea ez da inoiz errepikatuko".*




# LOTSA

25 apirila, 2026 | **por Jorge Ibor**

Ez neraman denbora gehiegi Hedapeneko bulegoekin lanean. Bulego haietan egiten nituen bisita-txandetako baten helburua produktu errentagarriagoen kontratazioa bizkortzea izaten zen errentagarritasun gutxiagokoen kaltetan.

Hau da, pentsio-plan (hemen BGAE) eta inbertsio-fondo gehiago, eperako hainbeste gordailuren ordez.

Bulego batean, lankide batek, jada erretiroa hartuta eta gure taldera afiliatuta zegoenak, bileraren erdian esan zidan:

> ***Jorge, ni Fondoak saltzearen aurka nago. Nire sentimenduek eragotzi egiten didate gardentasun gutxiko produktuak bultzatzea.***

Horrek ez zuen aurkezpena geldiarazi, ezta jarraibideak ere, argiak baitziren. Eta kontratatu egin ziren, behar den bezala.

Gaur erabaki dut ez daukadan, ez daukagun lotsaz, estaltzen dudanaz, estaltzen dugunaz, disimulatzen dudanaz eta disimulatzen dugunaz idaztea.

Lehen munduaren parte gara. Gizateriaren zati aberatsenaren parte gara. Aberatsena den zati horretako aberatsenen artean gaude. Pribilegiatuak gara pribilegiatuen artean.

Aurrezkiak ditugu. Pribilegiatuak izaten jarraitzeko gogoa dugu. Gure seme-alabek eta bilobek ere etorkizunean laguntza bat izatea gura dugu. Aurrezki horiek errentagarritasuna izateko beharra daukagu.

Eta horiek kudeatzen dituen bankuak ere bai, bezeroa pozik edukitzeko eta komisio gehiago kobratzeko.

Horregatik, gure inbertsio-fondoen, gure pentsio-fondoen egoera ikusten dugunean –gizadiaren gehiengo batek ez dauzkan eta zer diren ere ez dakien produktu horiek– egiten dugun lehenengo gauza, egiten dudana, beraien errentagarritasunari erreparatzea da.

Galdetzen diot neure buruari: Gutako zenbatek ote dakigu zertan inbertitzen duten gure Inbertsio- edo Pentsio-fondoek?

Ia inork ez daki zer-nolako zorretan inbertitzen duten zuzenean. Zelako gobernu edo enpresak dauden atzean.

Ez dakigu garbi samarrak diren gobernuen zorra den edota herritar babesgabeak esplotatzen eta/edo hiltzen dituzten gobernuenak diren. Edo elikagaiekin, urarekin edo bizitzeko funtsezkoa den beste edozein produkturekin espekulatzen dutenak babesten dituzten gobernuak diren. Ez dakigu ezer edo ia ezer. Asko jota, zor segurua eta errentagarria dirudiela.

Ez dakigu, ezta ere, enpresei, zorrari edo akzioen titularrei buruz, ez dakigu produktu arbuiagarrietan, armamentuan edo pestizida toxikoetan inbertitzen duten enpresak diren, edo, zuzenean edo zeharka, beharginak, umeak edo adinekoak esplotatzen dituzten beren fabrikazio-prozesuan.

Baina hori guztia korapilatu egiten da fondo horiek beste fondo batzuetan inbertitzen dutenean. Fondo horiek ez dakigu zer egiten duten edo nahiago dugu ez jakin, eta enpresetan inbertitzen dute "saneatzeko" eta, gero, kostatu zitzaiena baino askoz garestiago saltzeko, behargin edo langileen kontura bada ere. Edo fondo alternatiboak ditugu, iluntasun iraunkorraren adibide.

Fondoek eta horien kudeatzaileek (irabazia eta soldata doakie horretan) errentagarria den, bai, errentagarria den zerbaitetan inbertitzen dute, eta errentagarritasun hori haien ondare-balioaren gehikuntzan ikusiko dugu islatuta.

Lotsa, bai, lotsa.

Asko hitz edo berba egiten dugu, asko esaten dugu, baina hor jarraitzen dugu, hilero errentagarritasunari begira, bankuko kudeatzaileei azalpenak eskatuz gure fondoek espero duguna, gutiziatzen duguna, ematen ez dutenean, nahiz eta errentagarritasun horrek KPI gainditu.

Lotsa, nik hau idatzi ostean, eta Libanoz, Iranez, Ukrainaz, Somaliaz, goseaz, armez, gizarte-banaketa txarraz gogoeta egin ondoren, komunikabideetan ikusi edo irakurri dudana deitoratu ostean, pribilegiatu hutsa naizela baieztatu ondoren, fondoak tresna gaiztoa direla jakin ostean, horren guztiaren ondoren…

**NIRE PENTSIO-FONDOAREN ERRENTAGARRITASUNAREKIN JASO BERRI DUDAN DOKUMENTUARI BEGIRATUKO DIODALAKO, GORAGO IDATZITAKOA AHAZTUKO DUDALAKO ETA ZEIN ONDO DOAN PENTSATUZ ADORETUKO NAIZELAKO ETA, AGIAN, HAIN ONDO ERORTZEN ZAIDAN G.K.E. HORRI BESTE EKARPENTXO BAT EGINGO DIODALAKO.**

Lotsa? Zeren lotsa? Nire dirua da eta garbi irabazi dut, ez munduan dauden milioidunetako batzuek (edo askok) bezala!

Lotsa? Zergatik? Nik ezin ditut beste gauza horiek geldiarazi!

Lotsa? Ea prentsa gutxixeago irakurtzen dudan.

Lotsa? Tira, Jorge, ez zaitez demagogoa izan.

Ah, ez dut ahaztu nahi: GKE bati dirua ematearen kontua beste une baterako utziko dut, orain lagunekin ardo bat hartzera bainoa. Eta gaur pintxo eta guzti, nire Pentsio Fondoa espero baino hobeto portatu da eta.

# oferta de aceite «GOURMET»

La empresa **FINCA LA PONTEZUELA, SLU** nos ha hecho llegar una oferta especial para nuestros asociados referida a su aceite y demás productos de su tienda consistente en un **descuento del 15%** sobre su precio de venta por internet (válida para el año 2026), incluyendo el **código promocional que os hemos enviado por correo electrónico**

**Cupón no aplicable a productos en descuento ni combinable con otras promociones.**

La página de su tienda es: **tienda Finca La Portezuela**




El AOVE de **FINCA LA PONTEZUELA** es un aceite gourmet, un aceite de excelente calidad y muy reconocido, ya que ha obtenido más de 75 premios nacionales e internacionales.

**FINCA LA PONTEZUELA** se encuentra en la provincia de Toledo, y cuenta con un «Centro de Interpretación», un lugar dentro de la propia Finca, que mediante visita guiada y utilizando realidad virtual, permite transportarse al siglo V a. C y descubrir cómo se elaboraba el aceite de oliva en la Antigüedad. Además, se visita el propio olivar y se adentra en la almazara, se conoce la maquinaria, la bodega y el envasado y se realiza también una experiencia de cata de AOVE. La verdad es que es una visita sorprendente, sobre todo si no se ha estado anteriormente en un olivar de semejante calibre. Y se puede comer allí, hay restaurante.












# BANKSY

## HAIN EZAGUNA DEN MARGOLARI ANONIMO HORI




Guztiok ontzi berean gaude. Lowestoft.

13 maiatza, 2026 | **por Javier Campo**

Azkenaldian asko idazten dut Madrili buruz. Izan ere, nire biloba Madrilen bizi da eta hazten ikusi nahi dut, ipuinak irakurri nahi dizkiot, haren ikasteko gaitasuna nabaritu nahi dut, zelan kuxkuxeatzen duen ikusten duen eta jakin gura duen guztia. Horrek bizia ematen dit. Eta libre ez dagoen bitartean, bere ikastetxean dagoelako, edo arratsaldeetan, oheratuta eta lo dagoelako, hiriburuak eskaintzen duen guztiaz asetzeko aprobetxatzen dut, eta asko da eskaintzen duena, denbora luzean ez bada begiak ikus dezakeena baino askoz gehiago.

Bada Clair Thompson-en liburu bat, *The Art of Mindful Birdwatching* (Hegaztiak behatzeko artea) izenekoa. Liburu horretan, pasadizo pertsonalen eta ezagutza adituaren bidez, lorategi, hiri, zelai, baso, kostalde eta mendietan barrena bidaia kontziente bat egitera gonbidatzen gaitu, hegaztien munduaren edertasun handiaz eta aniztasunaz gozatu eta ikasteko; bidaia horretan, hegodun izaki horiek mirariak egin ditzakete gure bihotz eta buruetan, beraiei arreta eskaintzearekin bakarrik. Behaketa bistaratze hutsetik harago doa. Etenaldi- eta introspekzio-une bat eskatzen du, birsortze mental helduarekin amaitu arte.

Gogoeta horrek berorrek balio dezake, oro har, *"behatzeko arteaz"* hitz egiteko, edozein artez, hala nola pinturaz, musikaz, dantzaz, arkitekturaz, baita sukaldaritza-arteaz edo dialektikaz edo poesiaz edo zinemaz ere. Baina berba horiek biltzen duten guztia ez da artea. Obra bat artetzat hartzeko, bihotza bizkortzen ari zaigula, gure tripak nahasten ari direla, gure buruan dabilela, oilo-ipurdia jartzen digula, gure gorputza iraultzen ari dela sentiarazi behar digu. Ikusi bakarrik egiten badugu, baina axolagabe uzten bagaitu, zalantzan jar ezazue hura artea ote den. Behintzat, ez zuretzat.

Hotel guztiek sarrerako hallean izaten duten publizitate-panelean kuxkuxean nenbilela, atentzioa eman zidan liburuxka bat ikusi nuen. **Banksy**ren mural edo horma-irudiei eskainitako museo bat. Lehen aldiz berari buruz hitz egiten entzun nuenetik eta edozein herrialdetan, hiritan, hormetan egiten duena irakurri nuenetik, orain dela gutxi arte ezezaguna zitzaidan haren bizitzan gehiago sakontzeko eta haren marrazkietako batzuk argitzeko jakingura sentitzen nuen. Bizitza honetan gertatzen diren kasualitateak direla-eta, museo hori duela gutxi inauguratu da, eta ostatu hartzen dudan hoteletik oso gertu dago. Beraz, paseoan eta kalez kale ibiliz, aipaturiko jakingura asetzera joan ginen. Ez zitzaigun kostatu hura topatzea, eta, jende askorik ez egon arren, harritu egin gintuen hainbeste ikusteak. Ez genuen espero, bakarrik egongo ginela uste genuen, baina artista honek erakarmen handia duela egiaztatu ahal izan genuen. Kale-artista honen erakusketak ez du huts egiten, zoragarria da, erreprodukzioak oso onak dira eta birsortzea ezin hobea da areto zabal eta hedatsuetan.

Banan-banan, hormaz horma, pausoz pauso, gorri bizi batzuk dituzten kolore beltz haietan zehar ibili ginen, haren esaldi zorrotzak ezagutuz itzultzailearekin, ingelesa ez baita nirea. Marrazki guztiek dute beren mezua, mezu kritikoa, jakina. Mezu hori hurrupatu, heltzen utzi eta gero tu egin behar da, hurrengoa xurgatu ahal izateko. Haren lanek mezu urratzaile indartsua daramate, politika beren bizitza propioa hobetzeko baliatzen dutenei kritika garratza egiten baitie mezu sozial zorrotzekin; berez nabarmentzen dira eta oso hiri desberdinetako kale, horma eta zubietan agertu dira.



**Lau obraz osatutako erakusgarria areto zabal batean.**

Ezkerrean dugun grisezko lan honek elementu sinboliko erlijiosoak (aingerua) eta basakeria modernoa (balen aurkako txalekoa eta burezurra) uztartzen ditu, eta indarkeriari eta bizi baten galerari buruzko gizarte-iruzkin gisa balio du. Banksyren lagun Ozone grafiti-artistari egindako omenaldia dela uste da, batbateko heriotza, inozentziaren galera sinbolizatzen dituena. Kasu honetan, irudi inozente eta delikatua irudikatzen du balen aurkako txaleko batekin, eta bere baitan indarkeria eta gerra gorpuzten ditu. Banksyren lanetan, satirak, arrakastatzat joa izateko, ez dauka ideologia bat erabat desegin beharrik, nahiz eta mezu politiko indartsuak eman.

*"Girl with baloom"* (Neska puxikarekin) da obrarik ospetsuena eta erreproduzituena. Murru mailakatu batean dagoen neskatila bat irudikatzen du, ilea eta soinekoa haizetan dituela, itxuraz eskuetatik ihes egin dion bihotz-formako puxika gorri bati heldu edo, agian, jaregin nahian. Puxika gorria, kolore-ukitu bakarra, haurtzaroaren eta askatasunaren sinbolo arketipikoa da, gutako




**Girl with Balloon (Neska puxikarekin), Waterloo zubia, South Bank, Londres, 2002**



asko identifikatzen garelarik horrekin. Haur-jostailu soil bat baino gehiago, irudikatzen duenaren hauskortasuna ekartzen du gogora: inozentzia, ametsak, itxaropena eta maitasuna.

Oso irudi ezaguna da, eta 2017an Erresuma Batuan egindako inkesta baten arabera, britainiarren artelanik gogokoena. 2018ko urriaren 5ean, Sotheby's enkante-etxeak markoan ipinitako kopia bat enkantean jarri eta milioi bat libra baino gehiagoren truke saldu zuen. Enkantearen ondoren, eta partikular bati salmenta ontzat emateko mailuak atrila jo ostean, marko victoriarrean ezkutatutako paper-birringailu bat aktibatu zen, obraren erdia birrinduz, han zeudenak zur eta lur utzita. Hurrengo egunean, Banksyk bideo bat argitaratu zuen «*The urge to destroy is also a creative urge*» (Suntsitzeko bulkada ere bulkada sortzailea da) testuarekin, **Pablo Picasso** aipatuz. Bere burua suntsitzen ari zen irudia mundu osoan biralizatu edo hedatu zen. Enkante-etxeak ohar batean azpimarratu zuen *performancea munduko artearen historia bihurtu zela berehala*, eta ez zituztela artistaren planak ezagutzen. Komunikabideek balioztatu zuten **obrak merkatuan zuen balioa bikoiztu egin zela** haren suntsiketaren garrantziari esker. Autorearen beraren arabera, obra erabat suntsitu beharko zen, baina mekanismoak huts egin zuen eta obraren erdia baino ez zuen birrindu.

2019ko irailean, Christie's enkante-etxeak irudi ospetsuaren bi grabatu jarri zituen enkantean, bata urrezko globoarekin eta bestea globo gorriarekin. Bi grabatuak lote baten parte ziren, eta besterentzean, egileak oihu egin zuen: «*Ezin dut sinetsi ergelek benetan erosten dutenik kaka zahar hau*».

Txundituta hasi genuen bisita, eta hurrengo margolanek ere ez ziguten huts egin.

*"Mediterranean Sea View 2017"* (Mediterraneo itsasoaren ikuspegia 2017) triptikoa, zeinaren eredu edo erakusgarri bat utzen dugun hemen, enkantean jarri zen Sotheby's etxean 2020ko uztailean, artistak haurrentzako ospitale bati laguntzeko dohaintzan eman ostean. Pinturen triptikoak Europako herrialdee-



tan dagoen errefuxiatuen krisiari egiten dio erreferentzia. Hasiera batean "itsas pintura" soilak ziren, baina obra horiei izaera gehitutakoek ematen diete: salbamendu-txalekoak eta buia abandonatuak. Europa azken hamarkadetan bizitzen ari den migrazio-krisiaren aurrean erreakzioa lortu nahi dela uste da. Krisi horretan, ehunka mila pertsonak gerratik eta gatazketatik ihes egin dute, eta kontinentera iristen saiatu dira, bidaia arriskutsuak eginez batez ere Mediterraneo eta Egeo itsasoetan barrena. Hasiera batean, 1,2 milioi libera esterlinako prezioa izatea espero zen Sotheby's-ko *"Rembrandt to Richter"* enkantean agertu zirenean. Batutako dirua gaixo zerebrobaskular akutuak artatzeko unitate berri bat eraikitzeko eta Belengo Errehabilitazio Elkarte Arabiarrean haurrentzako errehabilitazio-ekipoak erosteko erabili zen.



*"Kissing Coppers"* (Poliziak musuka) lanak bi polizia britainiar elkar musukatzen irudikatzen ditu. 2004an inauguratu zen Brightoneko Prince Albert pubeko horman. Bi "bobby"ak zuri-beltzean margotuta daude. Biak uniforme osoarekin, beren gerrikoetan eskuburdinekin eta borra banarekin. Sexu bereko pertsonen arteko maitasun-ekintza baten irudikapen hori elementu komuna da artean, XVI. mendetik ere presente dagoena, Michelangelok margotutako Kapera Sixtinoaren sabaian ikus daitekeen lez.

Banksyk une oro bilatzen zituen gizarte-kritikarako leku eta egoera egokiak, eta New Orleansen "Katrina" urakan suntsitzailea gertatu eta hiru urtera, hara joan zen "in situ" kritikatzera Gobernuak garbiketa-operazioetan zuen moteltasuna, eta laguntzak argi eta garbi berandu iristen zirela eta gutxiegi zirela. Banksyren lanak umoretsuak dira, eta kritika ikusgarriagoa egiteko erabiltzen du hori.

Horren adibide da haren *"Nola"* lan ikonikoa, han sortu zituen 15etatik atze-oihal ikusgarri gisa mantentzen den bakarrenetakoa.



**Nola.** New Orleans.

2008ko abuztuan, Katrina urakanak eragindako hondamenditik hiru urtera, Banksyk New Orleans bisitatu zuen. Artistak hiriaren hiri-ehuna, artean hondatua, erabili zuen egoera kritikatzeko atze-oihal adierazgarri gisa, eta 15 txantiloi inguru utzi zituen. Haietako gehienak aspaldi desagertu ziren, baina oraindik ere modu askotara agertzen dira. Neska aterkiaren azpian dago, eskuineko eskua luzatuta, baina ez dio eragozten gogotik ari duen euria sentitzea. Aterkia, jakina, erabiltzen duena busti barik eta eguraldi txarretik babestuta edukitzeko diseinatuta dago. Euria zerutik ez erortzea, aterkiaren barrutik baizik, Banksyk daukan modua da ikusleari iradokitzeko gu babesteko sortu eta diseinatu ziren erakunde berberek, batzuetan, kontrakoa egiten dutela. Artearen merkatuari umorez egiten dion kritika garratza da? Kontraesanean dago? Hainbeste kritikatzen duen merkatuari bere burua saltzea aurpegiratu izan zaio. Edozer dela ere, haren lanak ez du inor axolagabe uzten.

Gizon haren eta haren lanaren ospea hain dira handiak, ezen aldi baterako estalki bat jarri behar izan baitute haren grafitietako batzuk bandalismo-ekintzetatik babesteko, adibidez, *"Seasons Greetings"* (Jai Zoriontsuak) izenburua jarri ziona. Bi aurpegiko grafiti bat, ume bat irudikatzen zuena, mihia kanpoan zuela, erortzen ziren elur-malutak harekin harrapatzen saiatuz, baina, benetan, erortzen zirenak kea eta hurbileko su baten txingarrak ziren, baina umeak ez zituen ikusten. Angelua egiten zuten eta siderurgia-langile baten garajekoak diren bi hormatan agertu zen obra hori.

Banksy kale-artista britainiar iheskorrak ofizialki aitortu zuen, duela denbora bat, AEBetara egindako bidaia labur baten esparruan, New Yorken agertu zenean, *"You Loot, We Shoot"* (Zuk lapurreta, guk tiroketa) murala bere lana zela. Txantiloiarekin



**Seasons Greetings.-** (Jai zoriontsuak). – Port Talbot. – Gales hegoaldea




"You Loot, We Shoot" (Zuk lapurreta, guk tiroketa).

egindako lanak negozio-gizon bat erakusten du, New Yorkeko burtsan lan egiten dutenek erabiltzen duten ohiko jantziarekin, eta azkar doa ihesi, billete-sorta bat eskuetan duela. Hori da akzioekin eta finantza-merkatuekin lotutako bigarren lana, hilabete batzuk lehenago Coney Island Avenuen agertu zen lehenengoaren ostekoa, eta ez da oso zorrotza izan behar eman gura izan zion interpretazioa asmatzeko.

Ageriko sekretua zen Ukrainan, sare sozialak animatzen hasi ziren bertoko kale eta hormetan agertutako grafiti batzuen argazkiengatik, Banksyren zigilua zeramaten eta. Kieven eta Ukrainako hiriburutik gertu zeuden kokaguneetan, gerrak gogor zigortuetan, agertu ziren. Haraino joan zen kaleko artista, beti gatazka baten epizentroan, beste behin ere. Haren jarraitzaile askoren eldarnioa iritsi zen, bere webgunean baieztatu zuenean haietako baten egiletza: gimnasta bat, Errusiak bonbardatutako eraikin baten hondakinen gainean kulunkatzen ageri zen. Hau da Banksyk Ukrainan utzitako arrastoen atzean haren benetako nortasuna aztertzen zebiltzan hainbat kazetarik egindako ibilbideko piezetako bat.



**Putin, K.O.-**Borodianka

Berriz ere, aurri-egoeran dagoen eraikin batean eta Borodyanka herrian, beste mural batean gizon bat agertzen da, Vladimir Putin irudikatzen duena, judo-borroka batean ume batek eraitsia *(Errusiako presidentea arte martzial honetan gerriko beltza izateaz harro agertu ohi zen, nahiz eta 2022. urtearen hasieran ezeztatu egin zioten).*

Borodyanka askatu ondoren, ikertzaile ukrainarrek dozenaka hobi komun topatu zituzten, non torturatu eta erraildako zibilen gorpuak baitzeuden lurperatuta.




Banksyri egozten zaion horma margotu honek dioenez, *"If graffiti changed anything, it would be illegal"* (grafitiak zerbait aldatuko balu, legez kanpokoa litzateke); Clipstone Streeten aurkitu zen, Fitzrovian (Londres), 2011ko apirilaren 28an. Diru-dienez, Emma Goldmanen *"If voting changed anything, they'd make it illegal"* (Botoa emanda zerbait aldatuko balitz, legez kanpo utziko lukete) esaldi historikoa du inspirazio-iturri. Goldman jatorri judutarreko anarkista eta idazle lituaniarra izan zen, "Amerikako emakumerik arriskutsuena" izendatua. Baina zer sinbolizatzen dute Banksyren lanetan sarri-sarri agertzen diren arratoiek? Agian Banksyk arratoiak estimatzen ditu, besterik gabe, ala esangura sakonagoa dago haren lanen atzean arratoiak agertzen direnean? Hori jakiten saiatzeko, ohartu behar dugu Banksyk sarritan kapitalismoa eta kontsumismoa jorratu dituela bere kaleko artean, eta uste da arratoi ikonikoek kapitalismoaren "arratoi-lasterketa" sinbolizatzen dutela: lehia eta kontsumismoa margotutako arratoiaren tamainaren arabera nabaritzen dira.

Banksyren arratoiek baztertuak sinbolizatzen dituztela ere uste da. Banksyk *"gorrotatuen eta jazarrien"* ahots gisa deskribatu ditu. Esan zuen: *"Zikina eta ezdeusa bazara eta ez bazaituzte maite, arratoiak dira jarraitu beharreko eredu nagusia"*. Banksyk uste du, arratoiek bezala, kaleko arteak ere aldaketa eragiteko gaitasuna duela, eta horregatik idatzi zuen esaldia ondo ikusten zen horma batean. Adierazpen horrek grafitia erresistentzia gisa zein ahaltsua izan daitekeen azpimarratzen du: grafitiak aldaketa eragin dezake, baina legez kanpokotzat jotzen da. Ongi dakigu arratoiak hiri-guneetan mugitzen direla antzeman barik. Banksyk berak baieztatu zuen arratoiak *«baimen barik existitzen direla. Gorrotatu eta jazarri egiten dituzte. Etsipen isilean bizi dira zikinkeriaren artean. Eta, hala ere, zibilizazio osoak mendean hartzeko gai dira»*. Baliokidetasun bat behartzen badugu, arratoiak kaleko artistak, ilunpetan kalez kale isilean mugitu behar dutenak, bezalakoak dira. Ihes egin eta udal eta ordena-indarretatik ezkutatu behar dute. *Banksyk berak bere nortasuna ezkutatu*

*behar du bere lanak sortzeko.* Sarritan gizarteak gogaikarritzat, borrokatu beharreko izurritetzat, jotzen ditu biak, Banksy eta arratoiak. Izan ere, Banksyk aerosolekin margotzen ditu arratoiak, eta horrek indartu egiten du paralelismo hori.



**Flower Thrower (Lore-jaurtitzailea)**

